

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA ♦



DANI BLANCO

Legean Ka(n)tiatuta

NORBAITEK aho betez demokrata dela esaten badit, erne jartzen naiz. Izan ere, urteekin ikasi dut, bere burua demokratatzat duela diotenak, zinikoa ez bada, egiaren jabe delako ustea izaten duela, eta, hortik, hurrengo pausoa, beste guztiei bere demokrata-tasuna inposatzeko saiakeran aritzea izango dela.

Gizatalde batek besteei norberarena inposatzeko joera ez da egungoa. Izatez, historian zehar, eliteek euren inposizioa legitimatzeko modu desberdinak izan dituzte, bai liderraren karisma, bai ohituren indarra, edo armada garaiezin bat. Oinarrian, beti, bortxazko indarra.

Ilustratu liberalek, XVIII. mendean, garaiko elite burgesaren boterea babesteko kontzeptu berri bat asmatu zuten: legea. Liderrek, ohiturek, armadek agintzen dutena, derrigorrez eta mehatxuz betetzekoa bezala agerrarazten ziguten, eta legeak agintzen duena, ordea, norberak bere buruari, eta guztiok geure buruari inposatzen diogun betebeharrak. Kantek teorizatu-tako autonomia moral haren ondorio sozial bezala.

Aurrerapauso handia izan omen zen hau, gizabakakoa, eta euren arteko elkarbizitza babesteko. Denok moralki autonomoak izan nahi dugu, eta hor, ustezko betiereko legean *katiatuta* utzi gintuzten elite zapaltzaileen aldeko ideologoei, burujabe izan nahian, geure burua euren menpe jarritz.

Horren harira, demokrata ongileak entzuten ditut legea goraipatzen, guztien artean egin dela, guztiok betebeharrekoa, jendarteko bakea ziurtatzen duen abstrakzio aldaezina. Eta bakea, justizia, askatasuna edo eskubideen gaineko balio bilakatzaren dutenez, demokrazia bera, hitzaren zentzua galduz, legea betetzean oinarritzen dute, herritarrak menpean iraunarazteko sistema politikoa zapaltzailea bihurtuz.

Eliteak egoera dagoenean jarraitzeko erabiltzen duen baliabidea da legea. Legearen inperioa beste legitimazio moduak bezain inposatzailea da, baina sendoagoa, abstraktua, ikusezina. Sakoneko sinesmen sor bezala barnerarazten digute, eta bereiztea ere zaila egiten zaigu: geure burua aske sentitzen dugu, eta legea, berezko betebeharrekoa.

Euren burua demokratatzat dutenak faxistak direla datorkit burura. Adibide asko daukagu demokrata horiek pertsona arriskutsuak direla konturatzen, alde batetik, politikoki bikaintzat dutelako euren burua, eta etikoki besteak baino goragokoak sentitzen direlako, egia, eta beraz, ongia platoniko-kristaua (ateoa izan arren), zer den baitakite.

Ausartuko ote dira katalanak, azaroaren 9a eta gero, demokraziaren izenean legea apurtzen, bortxazko indar demokrata haien esku izanik? ■

Legearen inperioa beste legitimazio moduak bezain inposatzailea da, baina sendoagoa, abstraktua



XDZ



Joanes Etxebarria



KAZETARIA

Jostuna

MAULEN deus gertatzen ez dela dioten Aste Santuko beilari euskaldunek ez dakite gutxia preziatzen. Ikus bestela beste egunekoa. Galtzak leku txarrean zulatu nituen eta josteko haria eta orratza ukunik ere, ez nintzen ausart nihaur konpontzen hasteko. Etxe ondoko jostuna aipatu zidaten.

Saltegitira lehen aldiz sartu eta berehala denda ederra zela ohartu nintzen, nahiz eta ez den hori hemen aipatu nahi dudana. Ene aitzinean bi emazte baziren, neguko arropak erostera jinak. Hau eta hura berrogei euro. Eta "*comment va Thérèse?*". Eta saltzaileak "*o, badakizü, toujours pareil...*".

Berriketa luzatu zen eta andereak gehiago jakin nahi "*elle mange pas?*". Eta saltzaileak, herabe, "*doi bat jaten dizü bai, mais l'eau gélifiée et comme ça*". Berriketa arrunta. Euskalduna zela oharturik, eta ohartu nintzelako soilik, ene galtzak euskaraz eman nizekion, eta euskaraz hartu zituen.

Istorio ttipi honek ez du gogoeta handirik piztu nahi, anekdota hutsa da; baina saltegitik ateratzean ikusi nuen sartzetakoan huts egin nuena, *Euskarari bai* pegatina. Detale hori, segur aski, Aste Santuko beilari euskaldunek ikusi zuten. ■

